

PROBA ESPEZIFIKOA

2018ko PROBA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

Erantzun zortzi ariketa hauetako lauri
(Ariketa bakoitzak 2,5 puntu balio du).

1. Egin ezazu iruzkin bat aforismo hauen esanahiari buruz:

- “Pertsona bat ezin da bi aldiz bainatu ibai berean”
- “Gerra da gauza guztien aita”

Zer filosofoenak dira? Zer esan nahi dute?

2. Azpimarratu itzazu egiazko enuntziatuak bakarrik, eta argudiatu zergatik hautatu dituzun:

Sofistek:

- a) Natura ikertzen dute.
- b) Uste dute egia erlatiboa dela.
- c) Ez dute gaitasun erretoriko handirik.

3. Zerrendatu itzazu Ockhamek kritikaturako filosofia eskolastikoaren oinarritzko alderdiak.

4. Identifika itzazu arrazionalismoari dagozkion ezaugarriak eta enpirismoari dagozkionak, eta azaldu itzazu labur:

- a) Gure ideia guztiak eskuratuak dira.
- b) Ezagutzaren iturri baliozko bakarra arrazoia da.
- c) Sortzetiko ideiak daudela baieztatzen du.
- d) Gure ezagutza osoaren iturria esperientzia da.
- e) Ez dago sortzetiko ideiarik: Ez dago ezer adimenean aurretiaz zentzumenetatik igaro ez denik.

5. Azaldu ezazu “postulatu” terminoaren esanahia, eta azaldu itzazu Kant-ek aipatzen dituen arrazoimen praktikoaren postulatuak.

6. Adieraz ezazu ea, pentsaera marxistaren ortodoxiatik, zuzenak ala okerrak diren baieztapen hauek:

- a) Iraultzak gainegitura aldatzera bideratuta egon behar du.
- b) Egitura ekonomikoa gizartearen oinarri erreala da.
- c) Azpiegiturak gainegitura zehazten edo baldintzatzen du.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2018ko MAIATZA

MAYO 2018

FILOSOFIAREN HISTORIA **HISTORIA DE LA FILOSOFÍA**

7. Beheko enuntziatuek Nietzscheren filosofiaren etengabeko itzuleraren teoriari egiten diote erreferentzia. Esan ezazu egia ala gezurra diren, eta zergatik:

- a) Etengabeko itzuleraren teoria kexa bat da, denbora lerro batean irudikatzearen aurkako kexa bat.
- b) Etengabeko itzuleraren teoriari esker, borondateak iragana nahi izatea gerta daiteke.
- c) Etengabeko itzuleraren ideia ezkorra da, funtsean.
- d) Etengabeko itzulerak "bai" esaten die biziari eta botere-nahia agertzen duen munduari.

8. Egin ezazu iruzkin bat mugimendu analitikoaren korrante nagusiei buruz, eta adieraz ezazu zein diren haien ordezkari nagusiak.



EBAZPENA FILOSOFIAREN HISTORIA (2018ko maiatza)

1.

Erantzuna:

Bi aforismoak Heraklitorenak dira, eta hau litzateke haien esanahia:

“Pertsona bat ezin da bi aldiz bainatu ibai berean” esaldiak naturak etengabe jasaten duen aldaketa islatzen du; funtsean, tentsioa eta dinamismoa. Naturan dena ari da etengabe aldatzen, ibai bateko ur-lasterra bezala, non urak etengabe ari baitira berritzen. Ibaiko ur-lasterra da Heraklitoren filosofiaren sinboloa da: “Panta rei: dena dabil, ezer ez dago geldirik”.

“Gerra da gauza guztien aita”:

naturak jasaten duen etengabeko dinamismo hori etengabe lehian dabilzan aurkarien arteko borroka azaltzen du: Hotza – beroa, gaztetasuna – zahartasuna, eguna – gaua. Aurkarien arteko borroka edo gerra horrek sortzen du naturaren dinamismoa azalduko lukeen tentsioa. Aurkarien edo antitesien arteko borroka hori bere metodo dialektikoan jaso zuen Hegelek. Marxek, gero, klase-borroka historiaren motorra dela baieztatu zuen. Ikus daitekeenez, luzea da Heraklitoren itzala.

2.

Erantzuna:

Sofistek:

- Natura ikertzen dute.
- Uste dute egia erlatiboa dela.
- Ez dute gaitasun erretoriko handirik.

“b” da egiazko enuntziatu bakarra. Gainerakoak faltsuak dira.

a) Faltsua da esatea sofistek natura ikertzen dutela, zeren eta haien benetako interesgunea gizakia baita. *Arkhearen* gai zaharra izaera antropologikoa duten gaiak ordeztu dute: politika, hezkuntza eta gizartea. Bere buruari galdetzen diote ez izaeragatik (*fisisa*) edo kosmosagatik, baizik eta gizakiagatik.

b) Bai, uste dute egia erlatiboa dela, dena ikuspuntuaren araberakoa dela. Protagorasek esan zuen moduan: "Gizakia da gauza guztien neurria". Beraz,



egia absolutua ez da existitzen; norberaren egia baino ez da existitzen. Ez dago egirik ez legerik balio unibertsala duenik.

c) Erabat faltsua da. Oratoriaren eta erretorikaren maisuak ziren. Beren dizipuluak "polis"eko bizitza aktiborako hezten eta trebatzen zituzten. Hizkuntza menderatzea: trebetasun erretoriko eta politikoa, aukera ematen ziena argudiatzeko, sinetsarazteko, gai ororen bi alderdiak erakusteko.

3.

Erantzuna:

Bere jarrera nominalistatik, filosofia eskolastikoaren behargabeko kontzeptu abstraktu hauek kritikatu zituen:

- Indibiduazio-printzipioaren kritika
- Esentzia-existentzia bereizketaren kritika.
- Jainkoaren existentzia frogatzeko proben kritika.
- Arrazoimenaren eta fedearen arteko haustura eta bereizketa: ez dira frogagarriak ez arimaren existentzia ez Jainkoaren existentzia, frogapen ororen oinarria esperientzia delako.

4.

Erantzuna:

- a) Gure ideia guztiak eskuratuak dira: Enpirismoa. Ideiak esperientziaren emaitza dira.
- b) Ezagutzaren iturri baliozko bakarra arrazoa da: Arrazionalismoa. Gauzak nolakoak diren erakusten digu esperientziak, ez zer diren. Arrazoa baino ez da gai galdera horri erantzuteko.
- c) Sortzetiko ideiak daudela baieztatzen dute: Arrazionalismoa. Ideiek, esperientziaren mendekoak ez badira, sortzetikoak izan beharko dute (funtsezkoek, behintzat).
- d) Gure ezagutza osoaren iturria esperientzia da: Enpirismoa. Zentzumenak dira mundua hautemateko tresna bakarra.
- e) Ez dago sortzetiko ideiarik: adimenean ez dago ezer aurretiaz zentzumenetatik igaro ez denik. Enpirismoa. Aurrekotik ondorioztatzen da.

5.

Erantzuna:

Kant-ek matematikatik hartu zuen "postulatu" terminoa. Postulatuak bistakoak ez diren eta frogatu ezin diren proposizioak dira, eta onartu beharrekoak dira,



zeren eta, bestela, ezinezkoa bailitzateke edozein baieztapen. Adibidez, Kant-en arabera askatasunaren existentzia ezin da frogatu, baina nahitaez onartu behar da "betebehar"aren beharkizun gisa, hori baita arrazoimen praktikoaren "a priori"zkoa. Modu sinpleagoan esanda: betebeharrak askatasunaren existentzia eskatzen edo postulatu du. Esaten bada "ikasi egin behar duzu", esaten da aukera duzulako ikasteko edo ez ikasteko; hau da, aske zara.

Errealitate horiek dira postulatuak; hau da, ez dira bistakoak eta ezin dira frogatu, baina onartu egin behar dira etikaren edo moralaren eskaera gisa. Kant-ek hiru bereizten ditu:

1. **Askatasuna:** "Eginbeharra duzu; beraz, aske zara". Eginbeharrak, azaldu berri den moduan, berekin dakar askatasunaren existentzia.

2. **Arimaren hilezkortasuna:** Borondateak, bere ekintza moralean, bizitza honetan ezin lor daitekeen xede bat du; beraz, baieztatu beharra dago badela beste bizitza bat non hori posible baita. Puntu horretara iritsita, arimaren hilezkortasuna postulatuak beste biderik ez dago.

3. **Munduan, izatea eta izan beharra ez dira identifikatzen: beharrezkoa da, beraz, onartzea Jainkoa dela bi errealitate horiek identifikatzen diren izakia.**

Kant-ek, azkenik, arrazoimen praktikoaren bidez altxatzen du arrazoimen puruarekin eraitsi duen guztia. Unamunok, "Bizitzaren sentimendu tragikoa" obran, honela adierazi zuen: "Kant-ek buruarekin eraisten duena bihotzarekin altxatzen du". Teoriaren eta praktikaren arteko kontrakotasuna –zeinean, geroago, marxismoak sakonduko baitu– zabalik zegoen jada.

6.

Erantzuna:

- Iraultzak gainegitura aldatzera bideratuta egon behar du. Ez da zuzena.
- Egitura ekonomikoa gizartearen oinarri erreala da. Zuzena da.
- Azpiegiturak gainegitura zehazten edo baldintzatzen du. Zuzena da.

7.

Erantzuna:

- Etengabeko itzuleraren teoria kexa bat da, denbora lerro batean irudikatzearen aurkako kexa bat. **Zuzena da.** Etengabeko itzuleraren teoria kultura grekotik hartua dago. Haren bitartez, Nietzschek protesta egiten du kristautasunak denborari buruz duen ikusmoldearen aurrean. Nietzschek arabera, lerro zuzenak gezurra dio, egia Zaratuaren eraztunean dago, zirkuluan, denboraren ikuspegi ziklikoan.
- Etengabeko itzuleraren teoriari esker, borondateak iragana nahi izatea gerta daiteke. **Zuzena da.** Denbora lerro batean irudikatzeak mugatu egingo luke botere-nahia: borondateak ezin du berriz ere iragana



desiratu, baina, guztia errepikatzen baldin bada, berriro desiratuko da iragana. Horrenbestez, botere-nahia eta etengabeko itzulerara elkarri lotuta daude.

- c) Etengabeko itzuleraren ideia ezkorra da, funtsean. **Ez da zuzena.** Baikorra da, berriz ere iragana desiratzeko aukera ematen baitigu. Gainera, Nietzsche hautapenezko etengabeko itzuleraren alde azaltzen da: itzultzen dena ez da berbera, baizik eta bikainena, dekadentea dena desagertu egiten da.
- d) Etengabeko itzulerak “bai” esaten die biziari eta botere-nahia agertzen duen munduari. **Zuzena da.** Bizitzaren eta existentziaren balioa adierazten du edozein doktrina ezkorren aurka; jolas kosmiko alai bat irudikatzen du, norbera onartzeko kantu bat, existentziaren bedeinkapena. Bizitzaren baieztapena da ukapen sokratiko-kristauaren aurrean.

8.

Erantzuna:

Pentsamenduaren historian, filosofo askoren interesa piztu du hizkuntzak. XX. mendeko lehen erdiko mugimendu eta korrante filosofikoen nahas-mahasetik, hizkuntzari buruzko kezka analitikoa jalgi zen. Hizkuntzaren filosofia hori praktika bat da teoria bat baino areago: Filosofia analitikoa argitze-jarduera bat da, gai bakar bati eragiten diona: hizkuntzari. XX. mendeko mugimendu filosofiko horri mugimendu analitikoa esan ohi zaio, oro har. Mugimendu hori hiru aldi eta korrante gutxi-asko elkarren ondokotan garatu da:

- B. Russellen atomismo logikoa da mugimendu horren abiapuntua, Wittgensteinen lehen aldiarekin batera. Wittgensteinen *Tractatus* obrak, parte batez, haren tesi nagusiei jarraitzen die.
- Jarraipena neopositibismo logikoa da, Vienako Zirkuluko kideek garatua. Hauek dira, besteak beste, haren kide nabarmenenak: Popper eta Carnap.
- Eta mugimenduaren gailurra filosofia analitikoa da, Wittgensteinen bigarren aldiaren eta *Ikerketa filosofikoak* haren bigarren obra nagusiaren ideien eraginpean. Filosofiak funtzio deskribatzailea du: hizkuntzaren erabilerak ulertzen laguntzea. Hizkuntza-jokoak ulertuz ebatzi behar ditu filosofiak problema filosofikoak. Problema filosofiko asko hizkuntzazko gaizki-ulertu linguistikoak dira: “Problema filosofikoak ez dira ebazten, disolbatu egiten dira” hizkuntzaren analisiaren bidez. Ez dago problema filosofikorik, buruhauste linguistikoak baino ez dira: “Gramatika-tanta batek filosofia-hodei oso bat kondentsatzen du”.



OINARRIZKO ZUZENKETA-IRIZPIDEAK

Ondoren, azterketak zuzentzeko zenbait irizpide azalduko ditugu. Galdera bakoitzaren puntuazioa 2,5 da, hiru faktoreren arabera bananduta: orokortasuna (1,5), koherentzia (0,75), funtsa (0,25).

1. **Orokortasuna:** gaiaren egitura, orokortasun kontzeptuala eta historikoa – gero eta dimensio gehiago hartzen dituzten zirkulu zentrokideak–izango da zuzenketaren

oinarrizko ildoak; beraz, zenbat eta sakonagoa eta zabalagoa izan erantzuna, orduan eta handiagoa izango da puntuazioa, irizpide hauen arabera:

- Erantzunean ageri den edukia (esaten dena) baino ez da kontuan hartuko (esaten ez dena kontuan hartu gabe). Beraz, puntuazioa metatuz joango da; gutxituz, sekula ez.
- Sakontzea honela ulertu behar da: galdetzen den filosofiaren eta/edo garaiaren ideia zentraletara pixkanaka hurbiltzea.
- Zabaltzea, honela: ideia eta/edo inguruabar historiko gehiago aipatzea.

2. **Koherentzia:** azalpenaren ordenari dagokio. Ideiak logikaz ageri dira ordenatuta lehenetasun baten arabera – epistemologikoa, ontologikoa, historikoa...–Nolanahi ere, erantzuna ibilbide ulergarri baten bidez garatzen da.

3. **Sendotasuna:** testuan kontraesanik ez egotea – zerbait baieztatzea eta, gero, haren kontrakoa edo gaiarekin zerikusirik ez duena esatea; filosofiak ez nahastea, ez eta garai historikoak ere, eta abar –.

PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO

ERLAZIOA

GALDERA	EZAGUTZA-ADIERAZLEA
1	1.5
2	2.2
3	5.8
4	6.2
5	7.7
6	8.5
7	9.7
8	10.5